# PORRONTXO

JAIAK



# PORRONTXO JAIAK

Egiatarras:

Del dieciseis al veinte de Septiembre se celebrará la undécima edición de las Fiestas de Porrontxo.

Animamos a todos los vecinos / as a que participéis en las fiestas al nivel que deseeis. En primer lugar deciros que no importa la edad para participar en una cuadrilla, pero que también habrá festejos para gente más tranquila.

Queremos hacer un llamamiento especial a todos / as egiatarras para que colaboren durante estas fiestas, ADORNANDO las terrazas, balcones, con la ikurriña, con globos de distintos colores, ó como mejor se les ocurra. La fiesta la debemos hacer entre todos / as.

Para las personas que no les guste el jolgorio y el bullicio les pedimos comprensión por las molestias que se les acarrea estos días.

¡Animo y a disfrutar las fiestas!

## JAIEN ABESTIA

NESKA MUTILAK HAURRAK ETA HELDUAK
DANOK POZEZ KUADRILETAN
GORA PORRONTXO, AUPA ATORRANTIAK
GOZATU GURE JAIETAN.

---

URTERO OSPATZEN DITUGU JAI ZORAGARRIAK
GURE LANAZ AUZORA POZEZ ERAKUTSIAK
KUADRILA GUZTIEN ARTEAN ERABAKIAK
HORREGATIK DIOGU DIRELA GURIAK.

---

GIRO HERRIKOIA DAGO GAUR GURE AUZOAN
AMNISTIAREN AMETSA BETI DUGU BURUAN
IKURRINA JARRITA DAGO GURE ETXEAN
DANOK POZEZ SALTO TA DANTZA KALEAN.

# AURKIBIDEA


Agurra ..... 2
Un poco de historia ..... 4
70. Hamarkada ..... 6
Egia Tinko ..... 7
Asociación de Vecinos de Egia ..... 8
Villa Salia para Egia ..... 8
Gladys ..... 10
Arranoaren Kabia ..... 12
Txaranga Porrontxo ..... 13
Euskara eta AEK Auzoan ..... 14
Kriseilu ..... 15
25 Aniversario del C. D. Kostkas ..... 16
Aitzarte, Club de Montaña ..... 16
Trebeska ..... 16
Egiako Gazte Asanblada ..... 17
Antxeta ..... 18
Centro de Formación F. y S. ..... 19
Aitor Ikastola ..... 19
Gailurrean ..... 20
Denok Taldeak ..... 20
Egiako Entitateen Koordinakundea ..... 21
Lau - Haizeta ..... 21
Sociedad Ur - Zaleak ..... 22
A. D. Donosti - Gain ..... 22
Tradición Festiva en Egia ..... 23
¡Por narices! ..... 24
Porrontxo Jaien Antolakuntzaz ..... 26
Karteles "Porrontxo Jaiak" ..... 27
Ekintzak ..... 28
Haur Komizioa ..... 30
Las Cuadrillas de Porrontxos ..... 31
Pasatiempos ..... 36
Programa ..... 37

# AGURRA

Porrontxo jaiak etorri dira beste urteen antzera gazte zahar, neska ta mutil, denon hartuta batera, lanak utzita presta gaitezen ateratzeko kalera diru laguntza handirik ez da baina ez goaz atzera piskana beti aurrera.

Gure jai hauek hamaikagarren urtera iritsi dira beti bezala bete-beteak joku eta kalegira jaietan parte hartu behar da eta ez egon begira begiak orain jarri ditzagun Egiatik urrutira ta esan hobe litzatekela presoak hemen balira.

Aste honetan utzi ditzagun betebeharrak ahaztuta Porrontxo jaiak oraingo hontan oso ondo datoz eta jai giro ona ez da faltako kaleak jendez beteta zu ere gukin atera zaitez blusa alaiak jantzita eta jai hauek pasa ta gero ezetz egon damututa.

Egiatarrok Porrontxoetan ez gara inoiz aspertzen saiatzen gara urte osoko arazoak ahaztutzen ta biriketan aire freskoa urte berrirako hartzen bihotza pozez eta gogoaz berriro indarberritzen ondorengoek esan bezate jende jatorra izan zen.

Orain bi urte batek esan zun atorranteak ginela eta horrela garbi utzi zun hemen ibili ez zela horrelakorik inola ere ez zun esango bestela etortzen bada jakingo du bai jator askoak garela ta gure jaiak guretzat behintzat munduko onenak direla.

Auzo honetan ez da piszina eta ez da gaztetxerik ez dugu ezta kultur-etxerik ez polideportiborik Donostiako besteen aldean ez daukagu

zerbitzurik baina etxe bat sobran daukagu guk ez dugu nahi txakurrik eta ez esan konponbiderik honentzat ez dagoenik.

Gure auzoak izena dauka aspalditikan Egia, aldapa, jende eta autoez daukagu beteegia, egiatarrak gure auzoa ez al da erdaldunegia? euskeran barna abiatzeko hor dago euskaltegia, denon artean Egia euskaldun egin dezagun egia.

Ondo eta lasai bizitutzeko arazo asko daukagu eta daukagun alkate horrek kaso egiten ez digu pazientziak bukaera du aspertzen hasi gara gu lasaitasuna eta patxada guri ere gustatzen zaigu baina beharrak asetu arte borrokan segiko dugu.

Bertso sorta hau egina dugu gure jaiei akiteko orain ahaztu arazo denak jaiak ondo pasatzeko jai giro honen aire garbiaz berriz indarberritzeko ta auzo jator, alai, euskaldun baten alde aritzeko eta berriro Porrontxoen zain irrikatzen gelditzeko.



*AURRERA*

# UN POCO DE HISTORIA

Antes de nada, para quienes sobretodo no conocéis nuestro barrio, Egia se encuentra en un alto situado al Este de Donostia y, en principio, se conocía como tal a toda la zona de la orilla derecha del Urumea.

Limitado antiguamente por los barrios de Gros, Altza, Loiola y el río Urumea, Egia ha quedado reducido en nuestros días, a los terrenos comprendidos entre Atotxa, Mundaiz, Loiola, Polloe, Intxaurrondo, Jai-Alai, Gros e Iztueta.

Egia debe su nombre al Caserío así llamado existente en la zona. Otros como Polloe-Enea dieron nombre al cementerio, y Konkorrenea, Aldakonea, Aldapa... dieron nombres a diferentes calles. Hoy en día solo quedan algunos de estos en la zona alta..

*Nuestra única expasión*

La expansión de Donostia afectó al barrio, construyéndose en sus solares distintas obras que marcaron el futuro. Al margen de las distintas construcciones de indudable repercusión en la expansión del barrio de Egia, como son el ferrocarril, el cementerio, la Fábrica de Tabacos, etc... la zona se limitó a unas pocas casas varios talleres, principalmente de marmolería.

Su verdadera evolución comienza en la década de los cincuenta del siglo actual, ante la falta de espacio en el centro de Donostia para la proyección de nuevos ensanches. Coincide con una dilatada emigración hacia Donostia que, en gran número busca alojamiento en el barrio de Egia por ser relativamente más económico.

Antes de esta época es cuando surge la Fábrica de tejas y ladrillos Egia, S.A. Por entonces, una de las características del barrio era una chimenea de 40 metros de altura, que servía para evacuar los humos producidos por dicha fábrica. Para la fabricación de ladrillos, la materia prima se extraía de las canteras situadas en el caserío Capitán-Enea, Concorenea y Cullasenea, siendo transportada la misma en un tren propio para la alimentación de los molinos, en los cuales se trituraba la arcilla y con cuya masa se fabricaban los ladrillos. Tras la crisis de 1931/32, se cerró la fábrica definitivamente al comienzo de la Guerra Civil (1936).

Varias zonas incluídas en terrenos de Egia constituyen pequeñas barriadas, como por ejemplo, Alai-Ondo, Alai-Alde, San Francisco Javier, Alkolea, Baztán, etc.

Haciendo un poco de historia, uno de los episodios que más afectaron a la historia moderna de Egia fue la inaguración del ferrocarril en San Sebastián el 15 de Agosto de 1864. La vía ferroviaria limitaría en gran parte a Egia, abriéndose los pasos de Iztueta, Gros

y Jai-Alai.

El nuevo cementerio fue inagurado en 1897 junto al caserío Polloe-Enea. El campo de futbol de Atotxa se inauguró en 1913 con un partido entre la Real Sociedad y el Atlético de Bilbao.

Al morir en 1917, D. Fermín de Lasala y Collado Duque de Mandas, el anteriormente denominado paseo de Atotxa, pasa a denominarse paseo de Duque de Mandas. En su testamento el Duque de Mandas donaba a la ciudad el parque de Cristina Enea, cuya extensión era de 37.824 metros cuadrados. El Ayuntamiento se hizo cargo del mismo el año 1926, con la particularidad de que debía de conservar el nombre que tenía y mantener la forma en que se hallaba cuando era propiedad privada.

Este testamento es una muestra clara del comportamiento tirano de este señor impidiendo el real disfrute de dicho parque. Cuando el 3 de Junio de 1979 la Guardia Civil nos quitó a Gladys del Estal en Tudela, el barrio decidió llamar a partir de ese momento al parque Gladys Enea, y así se ha venido denominando popularmente desde entonces, a pesar del empeño que el Ayuntamiento viene mostrando para mantener el antiguo nombre.

*La Estación a principios de siglo.*

*Sidrería Irubide, en la calle Egia.*

Para finalizar con la historia de mediados de siglo, no se nos pueden olvidar las sidrerías. Nuestro barrio contaba con dos tipos de sidrerías: las que vendían la sidra que les suministraban de cosecheros ubicados en otros lugares, y los que la fabricaban ellos mismos en sus lagares propios. De las primeras, había una situada en las primeras casas que existen en la cuesta de Aldakonea y hubo otra en Duque de Mandas n.º 47, enfrente de la Tabacalera, y otra del estilo en Egia n.º 4, bodega, propiedad de la familia Múgica y regentada por Basilio. De las que disponían de lagar propio, las cuales comercializaban su propia sidra, existían varias. La más importante fue Irubide por su ubicación (cuesta del cementerio) y espacio. Tenía un bola-toki, donde se disputaban campeonatos incluso de Gipuzkoa. En Egia n.º 30, existía otra sidrería de la familia Echave, esta tenía además un pequeño frontón, arkupe y recinto ajardinado en su parte trasera.

En el caserío Latxaga, existió hasta 1952 otra sidrería, y cercana a ésta, propiedad de Mariano Aranburu, en la casa Kullasenea había otra. Cerca del monte Ametzagaña existía el caserío Otxoki, y aunque pertenecía a Altza, era prácticamente como si fuera del barrio de Egia, pues gran parte de la gente se desplazaba para dar un paseo y jugar a los bolos y entrenarse en efectuar ensayos de levantamiento de piedra. Este caserío, juntamente con otros de la zona, desapareció cuando se inició la construcción del actual polígono de Intxaurrondo.

# 70. HAMARKADA

Aurreko orrialdetan auzoko historiaren alderdi zaharrenak aipatu ditugu, baina bada beste historia bat, auzoan mugitzen den kuadrila, talde, edota kolektibo bakoitzarena hain zuzen ere.

Auzoko talde ezberdinei eman zaie, aldizkarian zerbait idazteko aukera eta guztiek erantzun ez badute ere, hemen doakizue egin dutenena.

Ezer esan aurretik, gogora ditzagun Egia auzoak 1975ean hasi eta gaurdaino bizi izan dituen borroka adierazgarrienetarikoak: 1977ko amnistiaren aldeko borroka, Villa Salia eskuratzekoa, Gladysen heriotzaren aurkakoa... Egiak auzo radikal eta borrokalari ospea irabazi zuen garaiak izan ziren haiek, ongi merezi izandakoa, egun dirauen ospea.

Borroka haietan ihardun genuenok gauza asko ikasi genituen arren, gure arazoen irtenbidea ez zela kanpotik etorriko ikasi genuen batipat, arazoek irtenbiderik badute geuk eman behar diegula, alegia. Gu geu gara protagonista ezin gara kanpotik etorriko denaren zain geratu. Hori izan zen, agintariekin izandako bilera, egindako manifestazio eta barrikada askoren ostean argi eta garbi ikusi genuena. Agintari, politiko, zinegotzi eta abarreko horiekiko sekulako mesfidantza errotu da gure artean, sekula gauzatzen ez diren hainbeste promes eta hitz polit jaso ondoren.

Ongi borrokatzen bada irabazi litekeela ere ikasi genuen. Halere, jende askorengan etsipena nagusitu da. Badirudi ezer egiterik ez dagoela, aldaezina dela guztia. 70. Hamarkadan aritu ginenok berriz, ongi borrokatuz, behar bezala antolatuz eta afektatuen elakatasuna mantenduz, lortu litekeela uste dugu.

Villa Salia dugu honen adibiderik argiena. Erronka honetan Udaletxeaz gain estatuko entitate bat genuen parean: segurtasun soziala, hain zuzen ere. Irabazi egin zen eta argi dago protagonismo guztien gainetik batasuna izan zela nagusi. Ikasi genuen ere horrelako egoeretan harreman pertsonalak hobetu daitezkeela eta batera borrokatzeak elkarbizitzan laguntzen duela. Tartean beste faktore batzuk egon daitezkeela ukatu gabe 70. hamarkadan Egian giroa aldatu egin zen. Ordura arte jendea auzotik kanpo ateratzen zen, askorentzat auzoa lotarako leku bat besterik ez zelarik. Urte haietan, ordea, gauzak aldatu ziren, auzoan gero eta jende gehiago geratzen zelarik asteburuetan, taberna berriak ireki eta zeudenak harkorrago bihurtu ziren... Askorentzat Egiatarra izateak halako harrotasun kutsu bat zuelarik.

Izango dira hauek orduko kontuak direla pentsatzen dutenak, itzulezinak, alegia. Guk ordea, ez dugu horrela pentsatzen. Agian azalekoa aldatuko zen baina funtsean zegoenak hortxe dirau, gure ustez. Arazoak beretxuak izaki, jende bera...

# EGIA TINKO

70. hamarkadaren erdialdera arte ez zen Egian borrokarako jarrera nabarmenik azaldu, nahiz eta auzotar gehienak guda galdutakoak izan, hauen protesta ekintzak lantegietan ematen ziren, auzotik kanpo azken finean.

1974-75ean hasten da auzoa mugitzen. Txiki eta Otaegiren epaiketak lehenengo, Lemoizen aurkako borroka geroago, auzoan sortutako bestelako erreibindikazioak (Villa Salia) tartean... Baina ospetsu bihurtu ziren barrikadak, 1977. urtean amnistiaren aldeko borrokak sorturikoak, izan ziren dudarik gabe.

1978. urteko uztailean, Iruñan German eta Donostian Joseba Barandiaranen heriotzek sortutako istilu eta barrikadek oihartzun haundia izan zuten, batipat poliziaren errepresio ekintza batetan 50 portaletako kristalak apurtu eta 27 bat portero automatiko hondatu zituenan.

Ordukoak dira barrikada ospetsu hauek, noizbait historia egiterakoan azaldu beharko direnak, gure izakeraren adierazle eta betirako hortxe gorderik geratu direnak.

*Conquistando la calle.*

## *LA ASOCIACION DE VECINOS DE EGIA*

Después de varios meses de reuniones, el 18 de Diciembre de 1975 se celebró, en los Franciscanos de Atotxa, la Asamblea constituyente de la Asociación de Vecinos de Egia. Era un fenómeno típico de aquel entonces. En muchos barrios y pueblos de Euskal Herria funcionaban estas Asociaciones que, además de reivindicaciones urbanísticas o culturales, planteaban otras cosas, como la democratización de los ayuntamientos.

En Egia se funcionaba mediante comisiones de trabajo: Cultura, juventud, urbanismo, mujer, etc. Alrededor de 80 personas se reunían semanalmente en dichas comisiones, preparando actividades: conferencias, semanas culturales, actividades infantiles... Cualquier tema del barrio tenía acogida en la Asociación: desde el despido de unos trabajadores hasta la necesidad de un semáforo; desde la situación del euskara en el barrio a la denuncia pública de una violación.

La Asociación de Vecinos llegó a tener más de 400 socios / as y tuvo una actividad muy viva. Sin embargo, duró poco. A finales de 1976 empezó a declinar, y meses después dejó de funcionar.

Para muchos la Asociación fue una escuela de participación y debate y todavía así la recordamos. Era un punto de referencia para la gente del barrio, que acudía allí con sus necesidades y, siempre, era escuchada. Está claro que necesitamos cosas parecidas a la Asociación de Vecinos.

**ASOCIACION DE VECINOS EGUIA - ATOCHA**

Sube el pan
Suben las patatas
Sube el autobús
Sube la leche

**¿POR QUE?**

**CHARLA SOBRE LA SUBIDA DE PRECIOS**

Viernes, dia **28** a las **7** de la tarde

**En los locales parroquiales de los P. P. Franciscanos de Atocha**

OGIA IGOTZEN DA
PATATAK IGOTZEN DIRA
AUTOBUSA, ESNEA, BAITA ERE

**¿ZERGAITIK?**

ELKAR HIZKETA BAT PREZIOEN GORAKADETAZ

Maiatzaren 28'an, arratseko 7'an
Atotxan, Prantxiscotarren Aretoan

## VILLA SALIA PARA EGIA

La pelea de Villa Salia, ha quedado grabada en la memoria del barrio. Vamos a recordarla, sobre todo pensando en los más jóvenes, que no tuvieron oportunidad de vivirla y participar en ella.

En el año 1976 uno de los problemas del barrio era la falta de locales. Una de las actividades que necesitaba locales era la guardería, que estaba instalada, precariamente, en la calle Tejería. Fue entonces cuando supimos que una villa de Jai Alai, que anteriormente había sido un laboratorio de farmacia, estaba vacía, era propiedad de la Seguridad Social.

La lucha tuvo dos momentos. Uno, fue en el verano de 1976. En Julio de aquel año, la Asociación de Vecinos tomó cartas en el asunto. La villa se ocupó y se empezó a adecentar. Una y otra vez, la policía nos desalojó. Finalmente, la Seguridad Social, tapió puertas y ventanas. La lucha había sido minoritaria.

El segundo momento es en Julio y Agosto de 1977. En el barrio se sabe que la Seguridad Social va a subastar Villa Salia. Si pasaba a manos privadas, se perdían todas las posibilidades. Ahí empezó el lío de verdad. El barrio se moviliza: asambleas, comisiones, reuniones, visitas al INP... Se trataba de que se suspendiera la subasta y el Ayuntamiento comprara la villa y la dedicara a necesidades del barrio.

En un primer momento no se consiguió, aunque se nos dieron todas las buenas palabras del mundo; se celebró la subasta y se adjudicó la villa. Fue entonces cuando la gente se enfadó. Habían sido demasiadas mentiras. Una masiva manifestación entró por la fuerza en el Ayuntamiento, el 26 de Julio de 1977. Los periódicos de todo el Estado dieron la noticia. El alcalde en funciones se compromete a convocar al día siguiente un pleno, para decidir la compra de la villa. El día 27 de Julio, una nueva manifestación se dirige al Ayuntamiento para exigir el cumplimiento de lo acordado. En ese día el alcalde en funciones, Muñoz Múgica, se compromete por escrito a convocar el pleno. Este se celebró el 13 de Agosto. Villa Salia pasó a ser propiedad del Ayuntamiento. (Cesión a la Asamblea del Barrio).

Durante unos años se dedicó Villa Salia a Guardería; paro ello fue acondicionada por el Ayuntamiento. Pero no tuvo continuidad. La guardería tenía local y algunas subvenciones, pero no las suficientes. Seguía siendo privada. Poco a poco fue bajando de matrícula hasta hacer imposible su viabilidad.

Mientras tanto, parte del local pasó a ser utilizado por el euskaltegi del barrio. Hasta entonces las clases de euskara se venían dando en los centros escolares (Colegio Egia, María Reina) y siempre había problemas.

La lucha de Villa Salia demostró muchas cosas: la importancia de la unidad, la eficacia de los métodos directos... De todos modos, la lucha no surgió de la noche a la mañana. Las manifestaciones más fuertes duraron unos días, en Julio de 1977. Pero había grupos trabajando en el asunto desde el verano anterior. Esto nos enseña, una vez más, la necesidad de la organización, del trabajo callado, constante.

# GLADYS

Gladys, en 1979, tenía 23 años. Era muy conocida en el barrio, porque participaba en muchas actividades: militante de Comités antinucleares, daba clases nocturnas en María Reina, acudía a las movidas de la Asociación de vecinos...

El 3 de Junio de 1979, en Tudela, caía asesinada Gladys del Estal. Por la mañana, un autobús había salido de Egia, para participar en los actos que se habían convocado en Tudela, en contra de las centrales nucleares y en contra del polígono de las Bardenas. Gladys fue de las que organizó el autobús.

Eran los años de la lucha contra la central de Lemoiz. Iberduero, el Gobierno de Madrid y el Consejo General Vasco seguían defendiendo el proyecto, contra la voluntad clara de la mayoría de los habitantes de este país.

La mañana del 3 de Junio fue normal, en Tudela: canciones, teatro, intervenciones contra la energía nuclear... Después de comer intervino la policía nacional, sin que nadie se explicara muy bien por qué: porrazos, botes de humo... Cuando ya estaba liado todo y nos habíamos retirado al otro lado del puente, vinieron los guardias civiles. Uno de ellos le disparó un tiro en la nuca a Gladys, que estaba sentada en el suelo, tranquila, a la entrada del puente.

La reacción fue inmediata, y duró varios días: huelga general en todo Euskal Herria, manifestaciones... En el barrio el asunto fue muy duro. Primero fue el entierro, el día 4 de Junio. Cargas de la policía antes y después. La tradición de las barricadas de Egia volvió a renacer.

*Homenaje a Gladys*

*Todos con Gladys. Carga policial después del funeral.*

El día 5 de Junio se celebraron los funerales en la iglesia de los Franciscanos de Atotxa. Más de 5.000 personas se concentraron. A la salida del funeral, dos policías de paisano fueron reconocidos. Uno de ellos hizo un disparo; estuvo a punto de ser linchado. De nuevo pelotazos de goma, botes de humo...

El 10 de Junio hubo un homenaje en el parque del barrio, al que desde entonces muchos llamamos Gladys - Enea. Participó todo el barrio. La muerte de Gladys nos había llegado muy hondo.

Se formó una comisión popular investigadora, que publicó una revista con sus conclusiones, despues de entrevistar a cientos de personas que estuvieron en Tudela el 3 de Junio de 1979. Las conclusiones eran claras: la muerte de Gladys no fue una casualidad, ni un accidente. Tiempo después, el guardia civil que disparó a Gladys era condenado a 18 meses de cárcel... que nunca cumplió.

Todos los años se organiza un pequeño homenaje a Gladys, porque se ha convertido en uno de los símbolos de la lucha ecologista de Euskal Herria. Todos los años hay una marcha ciclista, una visita a la estela que recuerda a Gladys en la parte alta del parque... Hace dos años, en 1989, el homenaje fue multitudinario: era el décimo aniversario del asesinato de Gladys. Una vez más, fueron los amigos de Gladys los organizadores.

# ARRANOAREN KABIA

Egiako Arrano Elkartea duela hamar urte luze ireki genuenetik hamaika pasadizu gertatu arren, askotan ahaztu egiten zaizkigun sortu aurreko istotorioak hori bezain inportante dugula aldarrikatu nahi da hemendik. Gaurko honetarako aipatu bi ikuspegiak jorratzen saiatuko bagara ere ezezagunari, bigarrenari alegia, egin nahi izango geniokeen kasu gehien. Izan ere, sorkuntza guztietan bezala, bertan antzematen baitira, oinaze zein pozak medio, gizarteratzen gaituzten berrikuntzen erroak.

Egun Egia auzoan Arrano elkartearen eraginkortasuna ez du inortxok ere kolokan jartzen. Beraren bidez taiututako *Porrontxo* jaietan gaur egungo gazte koadrilek gainditzerik izan duten festetan eragiten zaizkigun norbanakeria eta kontsumismoa partehartze kolektiboa pairatuz. Ez du ohiartzun txikiagorik izan, jakina, bertatik sortutako *Txaranga* zeinak auzoko taldetasun metakor hura Euskal Herriko pesta gehienetan ibili zaigu zabaltzen. Era berean hitzegin genezakeen *Donostiako Danborradaz* etab baina, dena den, garrantzitsuena, gainerakoen antzera, egunerokoa dugu. Hau da, gure Arranoaren kabiak auzoan biltzeko arazoak zituen edonori aianik luzatuz doan bere historia egun guztietan zehar eskeinitako harrera irekia eta babesa: gizarte taldeak, hirigintzaz arduratutakoak, euskararen inguruan pilatzen direnak, mota ezberdinetako aldarrikapen kolektiboak etab... izan ditugu geure martxa honetan lagun, ez da gutxi gero!

Halere, egun aipatu guzti hori argi eta garbi badago ere (zerbaitengatik jaso behar izan genuen bonbazo ikaragarri hura!), hastapenetan ez bide zegoen horren garbirik. Duela dozena bat urte auzoan *Ur-Zaleak* eta *Donostigain* elkarteak besterik ez zegoenean, zenbait antolaketarako hutsuenak nabaritu arren horri erantzuteko ez zen ohizko "Sozietate Gastronomikoaren" formula guztiz egokitzat jotzen. Egia esan behar bada, geurea egiteko lehenengo urratsak ematen hasi ginenean kritika bat baino gehiago entzun behar izan genuen bai indibidualki baita kolektiboki ere. Nonbait, haserako asmo hartan zegoenaren errepikapen zuzen gisa besterik ez zen ikusi nahi. Bertan egon zitekeen proiektu alternatiboa, denboraren poderioz gauzatu dena hain zuzen, auzoko sektore ezberdinetatik nekez somatu, eta are gutxiago onartu egiten zen. Baina, dakigunez, halaz ere aipatu proiektu hura, gaur egungo Arrano alegia, martxan dago eta dagoeneko ederki asko frogatu du bere alternatibotasuna.

Hasi baino lehenago kritikak gure ingurutik bertatik azaltzen joan baziren ere geroxeago, gauzatze bidean genbiltzanean hain zuzen, gurekin auzoan enfretaturik zeuden sektoretatik etorri zitzaizkigun. Nahiz eta egun gezurra eman geure elkartean emakumezkoak sozio oso izatearen ahalmenak polemika piztu zuten barrioan eta batek baino geiagok, igerlearen eginez edo, porrota galanta profetizatu zigun. Honetan bertako profeten ezintasuna frogatu zen berriro ere.

Diru prolema, izena hautatzarena... anekdota hutsa baino gehiago diren oroimen horiek beste baterako utziko ditugu gauza bakar batekin bukatzeko, agian hasierako proiektua behar zen bezala gauzatu ahal izateko egon den ezinbesteko gakoari kasu egiteko hain zuzen: antolaketa sistema.

Bi hitz besterik: denon lana. Hau izan da funtsean sortu, ibili eta irauteko landu dugun ildoa. Hastapenetatik lurra egitean, ormak margotzean edota horniketa osoan denon partehartzea izan dugu legetzat. Bakoitzak, noski, gehien menperatzen zuen arloan baina beti besteen laguntzaz. Ondorioz, erabakitzeko antolaketa guztia asanbladaren inguruan egituratu zen eta, kidea izanez gero zihurtatu beharra zegoen mantenimenduko zereginak, Zuzendaritza Batzordeari dagozkion lanak hain zuzen, bertatik ezagutu behar zirela. Beraz, burokraziarik ez.

Egia esanda hazian ikusten ziren arrisku gehienak uxatuz joan gara. Arraultzatik ateratzear dagoen arranokumearentzat inguruko guztia omen da ikarragarria. Egun, berriz, indartsu eta heldua, gure ametsen txori harrek badaki bakarrik bizitzen eta, horrekin bat jakina, bizirik irauteko borrokatzen jarraitzen ere bai. Bada, goian adierazitakoaren antzera, ez da gutxi gero!

JOXEAN AGUIRRE
Prisión de Ceuta
Los Rosales
**11.700 CEUTA**

MONTXO ZAPIRAIN
Prisión Prov. de Araba
Tacope - Langraitz
**01230 ARABA**

MIKEL AZNAR
Prisión Nanclares de la Oca
Modulo 4 GAZTEIZ
**01230 ARABA**

JESUS Mª ARANGUREN
Ctro. de cumplimento
Alcalá - Meco
Ctra. Meco km. 5
Alcalá de Henares
**28880 MADRID**

¡DAR IEZAIEZU!!

# TXARANGA PORRONTXO

Al inagurarse la sociedad cultural ARRANO ELKARTEA en Enero de 1982, a un grupo de socios, que integraban la Comisión de Cultura y actividades diversas de dicha Sociedad, se les ocurrió crear un Txaranga en el Barrio. Para ello se informó a la gente que pudiera interesar aprender música y un instrumento. En Junio del mismo año ya contábamos con unas 26 personas y se empezó a crear la Txaranga de Egia.

Se compraron instrumentos en Julio, solicitando un préstamo y en Septiembre, empezamos el curso de aprendizaje de solfeo general y el instrumento que había elegido cada persona. Así pudimos estrenarnos la víspera de San Juan de 1983 por el barrio. Posteriormente hemos tocado en Barrios y Pueblos en fiestas, durante el verano.

Por la txaranga han pasado unas 64 personas, de las que llegaron a salir a tocar a la calle 51.

*Primera Txaranga de Porrontxo*

# EUSKARA ETA AEK. AUZOAN

## HISTORIA LABUR-LABUR

Duela hamahiru urte gutxi gora-behera, ordudanik hona ezagutzen baitugu orain dihardugunok, beste lekuetan bezalaxe, ziurrenera, abertzaletasunak eraginda gehienetan eta hizkuntza ikastea soil-soilik besteetan, auzotar asko animatu zen gure hizkuntza ikastera.

Ikasle kopuru nagusienak, gauez ekin behar izan zion ahal zuen neurrian eta esfortzu haundia eginez gainera. Baina, bazegoen arratsaldez ikas zezakeena ere (etxeko lanetan aritzen zena, bankariak, e.a.) Beraz, gauez erabiltzen ziren ikastetxeez gain, beste lokal batzu lortu behar izan genituen arratsaldekoentzat. Honek, leku ezberdinetan ihardun beharrak, lana eta koordinaketa zaildu egiten zien garai hartako arduradunei: Julio, Juan M, Joxean, Mari Carmen eta beste abar luze bati. Hala ere, aurrera egin zuen Euskal-Eskolak zailtasun horiek gaindituz.

Bizpahiru urtetan egoera dexente aldatu zen, bai lokal aldetik baita ikaslegoaren aldetik ere. Lokalari dagokionean, Villa Salia erabiltzen hasi ginen, askok eta askok ongi gogoratuko duzuen lorpenaren ondoren. Hasiera batetan, azpikaldeko zati erabiltzen genuen beste talde batzurekin batera eta egia esan, ez zen oso atsegina, gela handiegiak, hotza, zikinkeria, e.a.

Ordurako hasiak ginen Donostiako beste zenbait Gau-Eskolekin koordinatzen eta Donostiako AEK. gorpuzten, didaktika aldetik zerbait gehiago prestatzeko aukera eman zigularik.

Horrela pasa genituen hiruzpalau urte. Azkenik, Udalaren laguntzaz eta agian, 2. solairua EPAkoei eskeini zietelako edo..., guri lehen solairua erabiltzeko baimena eman ziguten. Egokitze lanak Udalaren kontu izan ziren, izan ere, bi solairu hauetan haurtzaidegia bait zegoen. Beraz, bazuen Egiako AEK. k ikasgune bakar bat eta egoki auzotarrei euskara, goizez, arratsaldez zein gauez ikasteko ahalbidetzen ziena. 1985-86ko ikasturtean ezagutu du Euskaltegi honek ikasle kopururik nagusiena 230 ikaslerekin.

Geroztik, beherakada nabarmen samarra gertatu zen. Alde batetik Intxaurrondon eta Grosen 2 Euskaltegi irekitzeagatik eta bestaldetik Donostiako beste zenbait Euskaltegi pribatuk ateak zabaldu zituelako. 90-91 ikastaroari begirada bat emanez, 10 talde izan ditugu. Guztira 110 ikasle eta horietatik %50 auzotik kanpokoak dira.

Euskara irakastea baldin bada ere gure eginkizunik nagusiena, ezin ahaztu inolaz ere euskara txertatzeko eta zabaltzeko egin dugun hamaika ekintza auzoan zehar: euskararen asteak, Korrikak, Jaialdiak, txapelketak, hitzaldiak, bertsolari ekitaldiak, e.e.

## EUSKARAREN EGOERA AUZOAN

Argi dago hizkuntza ikastearekin ez dela nahiko. Zabaldu eta erabili egin behar da. Azken honetan dago gure kezkarik nagusiena, erabilpenean, hain zuzen ere. Oso euskara gutxi egiten dela, ez da gauza berria, dakienak ez baitu erabiltzen behar hainbat. Ez da arraroa honako egoera hauek gertu-gertutik bizitzea: koadrillak heuren eginkizunetan gaztelera hitsean entzutea, Aurrezki kutxetan: -Kaixo egunon, zer nahi duzu? -Kontsulta bat egin nahi nuke. -Por favor Xabier, esta persona quiere hablar contigo. -Tira esaidazu, zertan lagun zaitzaket? Harrigarria! Bi lankideak euskaldunak eta heuren artean gazteleraz. Edo beste hau, edozein bilera dela medio, Euskaraz hasi eta gaztelera hutsean jarraitu. Elkarhizketa hauek edozein zirrikutan: -Ba al dakizu zer gertatu zen atzo? -Zer gertatu zen ba? -Ba, begira, ibamos por la calle y... Horrela ez goaz inora! Gu, dakigunok ez bagara saiatzen euskaraz komunikatzen, ez dakienak nekez egin dezake ahaleginik. Zertxobait dakienak berriz, ez badu entzuten, balizko animoak izango ditu. Administraziotik ere ahalegin gutxi. Ikusten duzu irakurle zintzo horrek, euskarak ez duela etorkizun argirik baldin eta zuk zeuk eta zure ingurukoek erabiltzen ez baduzue. Ez dakienak eta ikasi nahi duenak, Euskaltegian aurkituko gaitu.

Hori bai, "Porrontxoetan" ongi pasa eta esandakoa, saia zaitez Euskaraz.

EUSKARAZ BIZI.

*EGIAKO AEK.*

KRISEILU
EUSKARA TALDEA

## KRISEILU

Egunkariaren aitzakiaz sortu zen orain dela urte bete, nahiz eta aurretik auzoko zenbait jende euskaldun euskararen egoerataz kezkatua egon.

Egunkariaren kanpaina zela eta, indar berrituekin talde formal bat eratu zuten: Kriseilu, Taldearen partaideak beste honako taldeetatik zetozten; Trebeska, Aek, Ikastola, Euskal Herrian Euskaraz eta hauen artean zenbait auzotar ere.

Honen azken helburua auzoan euskararen presentzia bultzatzea eta noski ! Egia Euskalduntzea!

*EUSKARA BIZI.*

Hau lortzeko asmoz, ekintza zehatzak antolatzen hasi ziren, hor ditugu Sto. Tomas-eko, txistorrada, kanta, bertso, San Juan gauako afariak, hauetan auzoko beste talde batzuk esku bat bota zutelanik. Egunkariari lagundu zaio;... Bagera elkartearekin kontaktuak izan dira, bainan bide ezberdinetik doaz bat eta bestea.

Lehen urte honen ondorioa zera da: Lan handia egin beharra dagoela, denon esku bait dago Euskara indartzea eta zabaltzea.

## 25. ANIVERSARIO DEL C.D. KOSTKAS

El equipo de futbol C.D. Kostkas, fundado en 1927, celebra este año sus bodas de plata. Los veinticinco años de futbol en el barrio han dado sus frutos y, en este año, el equipo juvenil ha ascendido a primera y el C.D. Kostkas, con un equipo compuesto por jugadores menores de veintiún años va a participar en segunda regional.

El C.D. Kostkas, en el que han jugado la mayoría de los jóvenes del barrio, ha sido una importante cantera para grandes clubs como el Añorga, Michelín y la Real Sociedad. Algunos nombres de la cantera son Iñaki Ibáñez, único del C.D. Kostkas que ha jugado en primera división y Pedro Pascual, fichado recientemente por el C.D. Hernani.

El nombre de Kostkas, que durante los años sesenta muchos creían que era ruso, proviene de una organización de ocio que los curas daban a esta especie de club semejante a los Luises y a los Aguiluchos, entre otros.

El Kostkas tiene su origen allí por los años cincuenta cuando en el barrio había un equipo del mismo nombre integrado por egiatarras.

En los años sesenta, y con el padre Don Enrique Vivó en la presidencia, el Kostkas compitió en el campeonato playero llegando a conseguir importantes triunfos y prestigio y, como consecuencia de ésto, en el año 1967, se fundó el C.D. Kostkas como club y adherido a la Federación Guipuzcoana de Futbol siendo su primer presidente Don Sebastián Tenés (Sebas "El Practicante").

## AITZARTE, CLUB DE MONTAÑA

Por el año 1968, a un grupillo de gente se le encendió la bombilla y decidieron poner en marcha un club de montaña en el barrio. En un principio fueron pocas personas, consiguiéndose un local en los Franciscanos de Atotxa. Poco a poco la cosa fue creciendo en socios y actividades.

Actualmente, cuentan con un local en el edificio de los Arbitrios Municipal, intentando seguir adelante con esta afición.

## TREBESKA

Trebeska Dantza Taldea se fundó en 1976, llamándose en sus inicios Xabier.

Ha intentado seguir una línea tradicionalista tanto en música como en trajes y danzas. Son muchos los puntos de Euskal - Herria en los que ha estado pero también ha realizado salidas al extranjero como: Pierla-ligure (Italia), Montguyon, Pavie y Marsella (Francia), Billinghan (Inglaterra), Mallow (Irlanda), ...

En la actualidad son una 120 personas contando con el grupo infantil.

## EGIAKO ENTITATEEN KOORDINAKUNDEA

Auzoaren ekipamenduak gutxiegiak zirela eta orain dela urte dexente sortu zen. Geroztik bere historioa auzotarren errebeindikazio ezberdinei lotuta dago.

Azkeneko urte honetan, eta Plaza Handiko Polikiroldegia eta azpikaldeko parkingari buruzko aurkeztutako alegazioak Udaletxeak onartu ondoren (batzu, ze gure piszina eskatzen jarraituko dugu, nola ez!). Auzo-etxearen proiektua lantzen aritu gara (Jareño fabrikan kokatuko dena); hau da, auzotik sortzen diren iniziatiba kultural guztiak bilduko duen "etxea". Udaletxeak, ordea, dirudienez Jareñorentzat badu beste erabilpenaren bat. Hementxe daukagu ba oraingo "borroka".

